

Goibek Kale

Elgetako aldizkaria ekaina 36zK.

**BAT, BI, HIRU
JUERGA!**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Elgetako Herriari

Gasaren erabiltzaileok,

Dakizuenez, hilaren 16ko martitzenean, gas hormidurak ez zuen behar bezala funtzionatu istripu bat izan eta gero. Ez zen gasik egon herri-tarrentzako.

Motonibeladora batek eragin zuen gas hodia apurtzea. Berau, gurekin zerikusirik ez duten jarduerak burutzen zegoen herriaren lurzoruan. Esan beharrik ere ez dago beraz, gurekin erlazionatu gabeko jarduerak eragin zutela gas hornidura betiko modukoa ez izatea.

Elgetako Udaletxeak aberiaren berri emateaz bat gas emaria moztu zen 17:10etatik 23:25ak arte. Ondoren, esparruz esparru arazoa konpontzen ahalegindu ginen, herriko gasaren hornidura guztia hurrengo egunean burutuz.

Idatzi honen bidez, erabiltzaileei gure eskerra erakutsi nahi genieke erakutsitako ulertzeko gaitasunarengatik, nahiz eta, berriz ere esan, errua ez zela enpresa honena izan. Eskerrak eman baita ere Elgetako Udaletxeari emandako kolaborazioarengatik.

Adeitasunez,

Migel A. Pinedo
Repsolgas, Euskal Herriko
area komertzialeko zuzendaria

Eskerrikasko

Aldizkari honen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu joan zen ekainaren 24an, izandako sutea itzaltzen parte hartu zuen jende guztiari. Beraien erreakzio azkarrari esker, sutea ez zen geihagora joan eta neurri handi batean sute garrantzitsu bat izan zitekeena ekidin zen.

J.L. A.

**Finaleko egunian hondartzara fan
giñan**

-Txapelketian hasieria: halakon baten. Gero, amaittu ezinga, txapelketia be moztu egiñ bihar.

-Baloiak: uretara marmittaik barik fatia moduan. Ezin jokatu baloi barik.

-Arbitruak: batzutan bakarrik eta egon diranian ganora barik: Askotan jarritta, partiduai atenziñoik ifini barik. Sarri, futbituan araurik dagoenik be ez dakixenak arbitratzen.

-Kartelak: askotan kalia ifini barik, ta bestetan berandu.

-Final aurrekuak: partidu danak bukatzeka egon arren, jokatu ziran. Bateron batek ba daki zeintzuk ziran final aurrekuak jokatu bihar zittuen taldiak?

-Finala: burrukia.

-Legiak: ez dira errespetatzen. Askok, darenik bez.

-Arautegixa: ez dago ondo osatuta. Aldaketa sakonak bihar dira.

-Puntualidadia: futbitoko erlojua ordu erdi atzera dabil, gutxienez!!!!

-Tarjetak ta pituak: bata, sekula; bestia, batzutan. Zorionez, porteriak gogorrek dira.

-Futbitoko kantxia: arraixaik be ez dago ixa.

-Istilluak: asko! jokalarixen kulpiagaittik gehixenak, arbitruan kul-

paz beste horrenbeste. Horregaittik: talde bat ez da etorriko gehixau jokatzera, finaletik arbitruak alde egiñ zeban, joku biolentua, hankia apurtzeko bildurra...

Futbitua herriko ekintza ona dala pentsatzen dogu askok, baiña honek, futbito izate gutxi daka benetan.

Iban R. ta Iban A.

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Igande arratsaldeko sindromeari aurre egin

Gandea jende askorentzat asteburuaren amaieraren gisa gainditu ezineko egoera izan ohi da. Une horretan hainbat sentimendu agertzen dira: suminkortasuna, ezinegona, larritasuna... Horra hor igande arratsaldetako sindromea, psikologoek gero eta gehiago diagnostikatzen duten kuadroa.

Sindrome honek jotzen dituen pertsonak bi motatakoak izan ohi dira:

-Pertsona oso konpetitiboak batetik, beren lanbidearekin zerikusia duen guztiaz jabetu nahi dutenak, eta aisia eta jai-egunak denbora galdutzat hartzen dituztenak.

Eta bestetik, beren lan-giroa modu konfliktiboan bizi dutenak, beren lanbidean inolako satisfakziorik aurkitzen ez dutenak.

Pertsona hauek larritu egiten dira astelehena iristen ari dela eta lanera itzuli behar dutela ikustean.


Baina... nola egin aurre estutasun honi?

Errezeta magikorik ez dago, azken finean, bizimodua aldatu behar da, lana bere lekuan kokatuz, daukana baino garrantzi handiago eman gabe, eta bizitza erreala norberaren asmo eta nahiekin ahalik eta ongien egokituz.

Hau dena idatzi eta gero zera bururatu zait: preparatu zaitezte hurrengo astelehena hilak 6 beste sindrome mota bat pasatzeko: Elgetako jaiak igaro ondorengo biharamona.

Jai zorientsuak izan ditzaluela!!!

Maite Peñalver



Destinu petrala

Ez dira egun asko pasa lagun batek destinuan essinesten nuen edo ez galdetu zidanetik. Orduz gero joan diren egun hauean gertaturikoak ere, ez dakit, oraindik, aurrez idatzirik zeuden.

En resumen: No pñere lagunak mantentzen zuen moduan,edo ez, galdera hari nik erantzun nionaren antzera.

Ados geunden bai, batzuk, merezitakoak baino gehiago jasota joaten direla mundu honetatik eta beste batzuk merezitakoaren laurdena ere jaso gabe. Baina, nere lagunak, merezimendu horiek jaino ordutik erabakita egoten direla hor nonbait, eta nik, ezetz!



Horretan ari ginela hor bota zidan, aspaldi honetan konturatzen hasia zela destinu hori abizenan ere idatzirik ote zegoen. Ezagunak zituela Pagoaga basozaina, Hormaetxea etxegintzan diharduna, Jesus San Martin apaiza eta abar. Nik, kontrarik ere badela. Eta ez gutxi ere, erantzun nion. Baina, hainbeste adibiderekin, neu ere dudan jarria nintzen. Eta, gaur egun, amaren abizena aurretik jar-tzeko aukera izanda, zer? Etorkizun guztiak aldatzea posible izango al da?

Eta gizakiaren destinu orokorra zerk adieraziko ote zuen? Ba, argi ez zeukala, baina Jainkoa izango zela hori zuzenduko lukeena erantzun. Gainera, JaunGOIKOA izanik gora joateko aukera asko izango genuela! eta, beraz, lasai pasatzeko gauak eta egunak!

Eta Haren abizenaren berririk? Ba ezetz, ez zekiela abizenik zeukanik. Berriz ere dudan! Azkenean, praileren bati edo galdetzekotan gelditu zen horrelako heraldikaren baten berririk ba ote zeukan.

Nik, badaezpada ere, erantzuna jakiterik ez nuela nahi esan nion. Agian, Haren abizenak behe-rantz joateko joera edukiko zuela eta, gizakiaren akabera kaskarra jakin izanik bizitza baino nahiago nuela, destinoak zer ekarriko duen ankaraz gora zain egon gabe, neure bidea neuk jorratu eta datorrena datorrela. Zuek ere, badaezpada, onak izan!

Jose Angel Arriaran



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eguen gauean mozorrotu eta kaskajoaren pregoira

Eguen eguerdiko etxafle-
ro eta kanpai hotsen
ondoren jokuak izango
dira haurrentzat arratsal-
dean. Gaueko 22:30etan

Azkonabieta eta Jokin tal-
deak mozorro gauari
hasera emango dio.
Gauerdian puntu-pun-
tuan txupinazo eta zezen
suzkoak hasiera ofi-
ziala emango die
jaiei.

Azken urteetan
bezala pregoia botako
du herriko kaskajoren
batek, jai komisioaren
esanetan aurtengo
pregoilaria herriko
pertsonek ezagunena
izango da. Nor izan-
go den jakiteko plaza-
ra gonbidatzen ditu-
jai batzordeak herri-
tarrak.

Txupinazoaren
ostean, dantza, kon-
tzertuak... izango dira
jaien lehenengo egu-



Aurten nagusientzako play-backa egon ez arren mozorrotuak asko izango dira.

nean.
Hurrengo egunetan ekin-
tza asko izango dira, Kale
Animazioa, zezenak,
herri kirolak, buru han-
diak, pelota partidak,
gaupasa... jaiak urtean
behin dira eta gozatu

ditzagun denok batera.

Iazko kamisetak
agortu zaizkigu, baina
aurtengo kamisetak esa-
ten duten bezala "alkarre-
kin egiñ geinke". Ia ba
euskaraz!!!



Kuadrilek jaietan ondo pasatzeko aukera izango dute.

Lapurketa eskolan

Ekaineko bigarren asteburuan eskola berrietan lapurrak sartu ziren. Ez da lehenengo aldia.

Ekaineko bigarren asteburuan lapurrak sartu ziren esko-
lan. Hauek eskolaren beheko atetik sartu ziren, erabilpen
askotarako gela izango denaren atetik hain zuzen. Lapu-
rrek bideoa, bideokamara, argazki kamara eta bi kalkula-
dora eraman zituzten. Andereinoen hitzetan diru bila sar-
tu ziren, eskola guztia goitik behera nahastuta zegoen eta.
Astelehen goizean kajoi guztiak zabalik, papelak, karpe-
tak, kutxak... lurtean aurkitu zuten. Segituan Ertzaintzari
deitu zioten andereinoek.

Bi lagun ikusi omen ditu bertako bizilagun batek
eskola inguruan. Hala ere, eskolak denunia jarri du eta
Ertzainen ikerketaren zain daude. Ertzaintzak jakinerazi
digu lortutako arrastoaren atzetik dabilzala.



**Kaxoiak zabalik, eta dena nahastuta eta lurtean zego-
la bilatu zuten eskola.**

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI



Suak ia sorgin gaizto guztiak erre zituen

Haur txiki eta handiak sua eman zioten birritan egindako piloari



Umeek oso ondo pasa zuten San Juan egunean.

Ekainak 23an San Juan bezperan San Juansuak egin ziren Elgetako zenbait lekuetan. Ohitura jarraituz baserri batzuetan suari dioten fedea erakutsi zuten. Herriko neska-mutikoez egiten duten sua polikiroldegiko lautadan egin dute aurten. Udaletxean eskaera egin ondoren, hurrek lautadan pilatu zituzten kale, denda eta etxeetan eman zizkieten periodiko, kartoi eta abarrak. Egunean bertan pilo tokiz aldatu zuten gasa inguru hartatik pasatzen zela eta. Gaueko 23:00etan eman zitzaion sua piloari. Elgetako trikitilarien piezak alaitu zuten gaia.

Sua Salbador kalean

Ekainak 24an Salbador 15 eta Salbador 17 etxebizitzaren artean dagoen patioak sua hatu zuen. Hasiera batean alboko etxeetako bizilagunek etxe hauetariko batek sua hartu zuela pentsatu zuten. Auzokideak inguruko taberna eta lantegietara joan ziren estintore bila. Suhiltzaileak etorri zirenerako sua itzalita zegoen eta hauek badaezpada ere, ura bota zuten errautzetara.

Salbador 15eko lehenengo

pisuan berritze lanak egiten ari dira. Horregatik, patiora aterata zituzten koltxoi, papel eta liburuak... Patioko bizilagunek esan digutenez askotan egoten zen patioa zigarro mutxikin eta beste hondakin batzuekin beteta. Ertzaintzako argiketa sailarekin egon da Goibekokale eta oraindik ez omen dago argi sua zerk eragin zuen. Suhiltzaileek egiten duten txostena jaso arte ezingo da jakin sutearen arrazoia.

Udaleku Irekiak

Urtero bezala, aurten ere, Udaleku Irekiak izango dira herriko haurrentzat. Uztailaren 6an hasi eta 24a arte iraungo dute. 3 eta 14 urte bitarteko haurrek ekintza eta kirol askotanaritzeko aukera izango dute. Udaletxeak antolatu eta guraso elkarteak diruz lagunduko du aurtengo udalekua. Udaleku Irekien aurrekontua 300.000 pta. ingurukoa izango da. Monitoreei dagokionez udaletxeak antolatutako ikastaroan aritutako gazteei eta beste prestakuntzaren bat daukate-neei eman zaie aukera udalekuetan parte hartzeko.

Buztingintza Erakusketa

Uztailak 18an buzingintza erakusketa izango da. Buztingintza ikastaroan parte hartu dutenek Kultur Etxeko bigarren solairuan erakutsiko dute ikasitakoa. Lanak ikusteko eguna eta ordutegia: hilaren 18an goizeko 10:00ak eta 15:00rak bitartean.

Zabor bilketa berezi jaietan

Jaiak direla eta zabor bilketa berezia izango da. Ohiko zabor biletetek berdin jarraituko dute. Horrela, martitzen, eguen eta domekan beti bezala izango da zaborbilketa. Jaietako zapatuan goizeko 10:00etan izango da zerbitzu berezia.

**IBAIBA-
RRIAGA**

GARRAIOAK

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2
ELGETA

**Iragarri
zaitez.**

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

Gudarien Bide

Tel: 76 80 23

ELGETA

**OSTATU
JATETXEA**

Eguneko menua 800 pzta.

Karta.

Liburutegiak udako ordutegia

Datorren uztailen zehar Angiozar bailarako liburutegiak eta bertan burutzen diren ekin-tzak goizeko ordutegia izango dute, 10:00etatik eguerdiko 13:00etara zabalduko delarik. Beraz, Arratsaldean itxita egongo da.

San Pedrotan erakustaldia

Bergarako San Pedro jaietan azken urteetan antolatzen duten artisau lanen erakusketan aurten ere Angiozarko Liburutegian esku lanak egiten dihardutenen artelanak ikusteko aukera izango dugu. Erakusketa hau datorren zapatuan, hilak 27an, egingo da Bergarako erdiguneko kaleetan zehar.

Beheko kaleko lanak aurrera

Horma zaharrak bota, enkofartuak egin, hormigoia bota eta horma berria eginda ikustea egun batetik besterako gauza izan da. Orain, harriekin forratu eta itxura dotoreagoa ematen dihardute. Hurrengorako ere, behar izanez gero, langile hauen izena apuntatu beharrekoa da. Bitartean gailegoa entzuten ohitu gara Beheko kalean, umore onean, goizeko zortzietatik hasita.

**Eskola txikien egun arrakastatsua**

Argazkian ikus ditzakezue angiozartarrak Zizurkilgo oholta gainean egin zuten erakustaldi bikaineko pasarte baten. Gipuzkoako Eskola Txikien eguna benetan ederra izan zen eta Angiozarko ikasleek arrakasta lortu zuten Acquaren kantak imitatuz, guztietan txalotuenak izanik. Eguna beste eskola txikietan dagoeneko ugari dituzten lagunekin pasa zuten jolasean.

Goizean, aurkezpenen ekitaldian herrietako alkate eta ordezkariak izan ziren bertan eta Angiozarko alkatea den Gorka Elortza ere

bertan izan zen.

Elgetan ere bai

Pasa den zapatuan, hilak 20, Elgetara ere joan ziran gure haurrak antzerkia egitera. Elgetako eta Angiozarko haurrak elkar ezagutzeko jaia zen, eta antzezlanen bikaina izan arren eta Elgetako gaztetxoekin lana ere oso ona, hara non publiko artean hogeitaz aritzen baina gehiago kontu zitezkeen eta elgetarrak zortzi bakarrik... amamak ere ez ziran joan loibak ikustera!! futbolak ete zeukan kulpaa oraingoan ere?

San Kristobal Jaiak

Errekaldeko San Kristobal jaien egitaraua aurreratzen dizuegu hemen, San Ferminetara joaterik ez dutenez bertan izango baita giro paregabea lagunartean gaba pasatzeko.

Uztailak 9 EGUENA

- Gabeko 10:30etan pinu jasotzia

San Kristobal ermita aurrean.

- Ondoren txokolata banatuko da.

Uztailak 10 BARIKUA

- 12:00etan: Meza

- Meza ostean kotxeen bedeinkazioa (ez ahaztu lorez dotoretzea)

- Gabeko 23:00etan: IMANOL eta ZABALETAekin ERROMERIA

Uztailak 11, ZAPATUA

- Arratsaldeko 15:30etan: Tiro-Plato Txapelketa

- Gabeko 23:00etan: MUXU TRUK taldearekin DANTZALDIA

Uztailak 12, DOMEKIA

- 12:00etan: Meza

- Ondoren kotxe bedeinkazioa

- Eguerdi guztian Triki Trixa.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodrigues Da Cruz

IAPAM

Galdaragintza arina


Soldadura homologatuak

Hoditeria


Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA


Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14



Soiñu
hotsa en-
tzungo dogu
oiñgo jaxetan.
Talde ta talde
askok dake hau
instrumentuau.
Nahikua argixa
zan ezta? Bai,
gitarra bat da gure
maketzailliak dis-
tortionau dabena.
Hain zan erreza...
Halan zala
baekixen Iratxe
Castañosek. Kartatxo
baten erantzun zuze-
na bialdu ebalako
bera ta berak nahi
daben laguna afaltze-
ra fango dira.
Zuk be afal-
tzera fan nahi dozula?
**EZ DA BAPE ZAI-
LLA!!!**
Oinguan be
ez dogu zailla ifini
izan be afarixak amai-
tzen dare ta gura
giñuke danoi aukeria
emotia. Animo
ba!!!!!!! Ez galdu
aukeria. Idatzi
Goibekokalera.
Badakizu zein dan
zuzenbidia:
Goibekokale aldizka-
ria, Salbador kalea 2,
Kultur Etxea. Elgeta
(Gipuzkoa).
Asmau biha-
rrekuha haxe, zer da?



Antolau leike berriro umien euskal Jaixa Elgetan?



Xabier Ezpeleta
Bihargina (39 urte)

Politta izango zan, baiña nik dudia daukat holako gauza bat egittia lortuko litzakenik. Ume gutxi dago, ta erakusteko be jente gutxi dago.

Bai, uste dot antolau leikela berriro euskal jaixa lehengo erara, gaiñera umiak oiñ ikasten dabiz aspaldiko partez. Asmua ez dakitt zein izango dan, baiña 3 urtetik hasi ta 10 urtera arteko umiak dabiz ikasten.




Aintzane Zabala
Bihargina (38 urte)

Denboriakin biharbada lortuko da berriro antolatzia euskal jaixa, baiña asko kostauko da. Horretarako jende asko mobidu bihar da ta ez dot uste ezeren truke iñor mobiduko danik.



Eva Urzabal
Bihargina (38 urte)

Politta izango litzake holako zehozer antolatzia, baiña ez dakitt jentia hori lanoi hartzeko gogo haundirik dakanik, gaiñera, umiei dantzian erakutsi biharko jakue, ta nik neuk behintzat, ahaztuta dakaraz horrek dantzok.



Angel Egizabal
Biharbakua (54 urte)


Ondo pentsatzen jata berriro antolatzia euskal jaixa. Oiñ arte egiñ dan guztietan hartu izan dittugu pare bat ume etxian bazkaltzeko, ta asko gustatzen jaku. Berriro egongo balitza be hartuko giñukez.



Basilia Zarrabe
Jubilaua (75 urte)

Edarra izango litzake berriro holako egun bat eukitzia Elgetak. Zailla izango da, baiña lehenau politta izaten zan. Uste dot gogo pixkatekin lortuko litzakela.

Blas Arrazola
Jubilaua (74 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETAK ETA
FIJAZIO SISTEMAK
 Berraondokua Z/g 20690 Elgeta
 P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

EROSLE
M. Asun Agirre
 Salvador 26. Tel: 768190

7
L
E
A
P
A
7
N
D
E
G
A
7
A
7
A

M^a ESTHER
 Tel: 76 81 67

Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Kopa bat

Paxi Taberna

VIVO
 Janari Jendak

Tel: 76 81 31
 M^a Jesus Arrazola

Aries: Uda partian ez dok/don golpeik be joten, batian berua dala, bestian kantsauta... Hurrenguan ze izango ete dok/don?

Taurus: Osasun aldetik nahiko eskas ibiliko haiz, orduan, zaindik/zaindiñ altxor hori bestela azkenerako nun hagon be ez dok/don jakingo.

Geminis: Astia ona izango dok/don hiretako; bai lagunekin ondo egoteko, bai lanian ta baita familixiakin be.

Cancer: Hire aurpegixa ikusitta biharakin kokoteraiño hago! Lasaittu hadi ba jaixak gañian dittuk/dittun ta.

Leo: Euzkixa hartzeko premiñia be badaukak/badaukan, baiña kremia be emon, bestela hire azalak ez jok/jon aguantauko.

Virgo: Maittasunakin sekula baiño hobeto ibilliko haiz. Hik bestiak maitteko dittuk/dittun ta baita bestiak hi be.

Libra: Izarrak zelan daren ikusitta, bakarrik egotia hobeto dok/don hiretako. Fan hadi mendi aldera bakarrik.

Escorpio: Lasai, badakik/badakin Sanjuan ostian hire herriko jaixak jatozak/jatozan egiño dittuk/dittun oiñarte egiñ ez dittuanak/dittunanak.

Sagitarius: Azkenaldixan beti zarataka habil, ze pasatzen jata/jatan? Hirekin berba egitteko lagun onak dakazak/dakazan.

Capricornius: Diruz oso ondo ibilliko haiz, baiña amodio kontuan hankaz gora habil ta hik badakik/badakiñ zegaittik.

Acuarius: Kirolian lasaittasun gehixaukin ibili bihar da, bestela jenixuak laster aurria hartzen jok/jon.

Piscis: Astian primeran sentiduko haiz ta inguruko danak be gustora egongo dittuk/dittun hirekin. Segidik/segidin holaxe.

Kontxi Bolinaga Bihargiña (54 urte)

Zenbat urte peskaderixan lanian?
30 urte inguru.

Zelan ikusten dozu Euruakin erosketak egiñ biharra?
Kristonak ikusi bihar dittugu.

Zein musika dozu gustotuen gizonakin dantzan egitteko?
Ez gara bape dantzariak.

Oiño Elgetako jaiak ala lehen-guak nahi-xau? Oiñguak.

Arroza koilariakin ala tenedoriakin jaten dozu?
Koillariakin.

Lapurreta asko egon dira denda? Bapez.

Ze jazten dozu lotarako? Neguan pijamia ta udan kamisioa.

Zapatak takoiakin ala barik? Barik.

Zer egiño ziñuke seme-alaban batek homosexuala dala esango balo-tzu?
Onartu egiñ bihar.

Zimurrak kentzen dittuen kremitan siñisten dozu? Ez dot siñisten, baiña komeni jata zehozer.

Goibekokaleko atalik gustokuen-a? Erretratuak ikustia gustatzen jata.

Ze animalixa eukiko ziñuke etxian? Neregaittik bapez baiña txakurra dakau.

Segitzen dozu GALen epaiketia? Ez.

Sekula erre dozu? Bai, bodetan ta holakuetan.

Siestarako orduik onena? 14: 30 ta 15:00rak inguru.

Zein musika taldek gustauko jatzun Elgetan jotia? Oskorrik.

Zer pentsau jatzu "bapatetkua"? Oso politta.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behetkoa Baserria. Tel: 860156

AEK-k bigarren urtez jarraian antolatuko du udako barnetegia Elgetan

Urte osoan zehar barnetegian euskara ikasten ibili ondoren, udan, neguan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen die AEK-k bere ikasleei. Bigarren urtez jarraian, ikasle hauek batzuk, Elgetan igaroko dituzte oporretako hamabost egun. AEK-ko koordinatzaileek euskara lantzeko leku aprosa dela uste dute. *Goibekokale* Marian Esposito, Elgetako uda barnetegiko koordinatzailearekin izan da gai hau eta gaur egun hari-harian dauden beste gai batzuren inguruan zertxobait gehiago jakiteko.



Txalaparta ikastaroa ere egin zuten Gaztetxeko lagunekin batera.

“Aspaldidanik uste genuen Elgeta leku aproposa zela uda barnetegiak antolatzeko. leku ona zela iruditu zitzaigun, batetik, biztanle kopuruagatik, barnetegi bat antolatzeko ez baita behar biztanle asko dituen herririk. Eta bestalde herri oso euskalduna izanik eta baldintzak hauek betetzen zituela ikusirik, leku aproposa iruditu zitzaigun. Azpiegiturari ere garrantzi handia ematen diogu eta nahiz eta Elgetak azpiegi-

tiura oso onak izan ez, moldatzea lortu genuen”. Elgeta uda barnetegi bat antolatzeko leku ezin hobea dela pentsatuko zuena gehiengo izango zela argi dago, baina Marian Espositok esandakoaren ostean, zalantzak

gero eta murrizagoak izango dira. Behar den guztia izateaz gain pasadan urtean izandako esperientzia oso positiboa izan zela adierazi zigun Marianek “Bai. Pasadan urteko balorazioa oso positiboa da. Bai antola

tzaileok, bai ikasleak eta baita irakasleak ere oso pozik daude jasotako tratuarekin. Ahozabalik geratu ziren Udaletxeak, Gaztetxekoek, zuek Goibekokalekook eta herri osoak oro har eskaintako laguntzaz.


“Nahiz eta onartu ezin dut ulertu PP eta beste talde politiko espainiolisten jarrera. Beraien helburua Euskal Herria deuseztea da. Barkaezina dena, ordea, euskaldun zaharrek hori onartzea da.”

Printzipioz, bost talde etortzeko ziren (bi uztailen, abuztuan bat eta bi irailean) baina arrazoi batzuk edo beste direla medio aurten beste urteekin alderatuz askoz jende gutxiagok eman du bere izena. “Jasatzen ari

F . O

**Kalitate kontrola
Piezei azken ukituak**

Tel: 76 80 38




salbado
19
behea

**M^A Karmen
Lenzeria**

Lentzeria eta
kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040



HARATEGIA

AST

San Roke 6
tel: 768168.

garen jarraipena dela medio matrikulazioa asko jeitsi da eta arazo handiak ditugu taldeak osatzeko. Talde batzuk osatzea ezinezkoa izago da" esan zigun Marianek.

Euskaraz ikasteko arrazoiak

AEK-k bederatzehun irakasle inguru eta kolaboratzaile mordoxka bat ditu. Datu hauek argi erakusten dute euskararekiko interesa handia dela. Gai honen inguruan galdetu genionean Marianek argi esan zigun jendea zerk bultzatzen duen euskaraz ikastera, "Gehienak motibazioa dute arrazoi nagusia, euskararekiko atxikimendua dute. Harrigarria bada ere, euskaldun berri batek euskaldun zahar batek baino atxikimendu han-

diagoa dio euskarari. Askok ez dute gaztetan ikasteko aukerarik izan eta orain aukera hori aprobetxatu nahi dute. Bizi den tokiaren partaide sentitu nahi du, herriak nortasuna duela konturatzen da, hizkuntza propioa... eta horrek euskara ikastera bultzatzen du".

Beste batzuk ordea lan arrazoiengatik jotzen dute AEK-ra. Hauei askoz gehiago kostatzen zaiela dio Elgetako Uda Barnetegiko Koordinatzaileak: "Lana lortzeko euskaraz ikasten dute askoz ere arazo handiagoak izaten dituzte, afektibitatea falta dutelako. Ez dute onartzen hizkuntzak duen autonomia eta behin eta berriz galdera ugari egiten dituzte denari arrazoi atera nahian. Askotan beraien



Marian Esposito, Elgetako AEK barnetegiko koordinatzailea.

betiko hizkuntzarekin gonbarazioak egiten dituzte. Motibazioa afektiboa denean gauzak askoz errazago onartzen dira."

Denon ahotan

Lehen aipatu bezala, arrazoi batzuk edo beste direla medio, AEK albiste izan da azken hilabeteotan. Marian Espositok

badu zerezanik gai honen iguruan, "Niri pena handia ematen dit azken hila-beteotan gertatu den guztiak. Nahiz eta ados egon, ezin dezaket ulertu PP edo estatuko beste talde politikoek izandako jarraera. Beraien helburua euskara deuseztea da, horrela, Euskal Herria deuseztatuko baitute, baina ez dira euskara zuzenean erasotzen ausartzen eta euskara erakusten duten erakundeak erasotzen dituzte. Dena den, ulertu ezin dezakedana, euskaldun zahar askok egoera hau onartu izana da. Bar-kaezina dela deritzot".

Arazoak arazo, bere ikasle izandako bat euskaraz mintzatzeko gai dela ikusteak izugarrizko poza ematen dio Mariani "Ez dago dirurik hori ordaindu dezakeenik. Izugarrizko poza sentitzen dut, izugarria".



Iaz, euskaraz ikasteaz gain, kantuan ere ikasi zuten AEKideek.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201




HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Skastola oporretan



Maite Agirregomezkorta (6 urte)
Egurak erretzeko da sua, dana erretzeko, zikinkerixak erretzeko. Ezebez gehixau ez da egitten. Bueno... Kartoiak be erretzen dira. Ixiltzeko be bada sua, baiña erretzeko be bai.



Mikel Agirregomezkorta
(6 urte)


Sua erretzeko da, eta berriro be erretzeko. Etxia erretzeko be bada, nik ikusi dot. Sakuak erretzeko be bada.

Zer da sua?

San Juan suak pasau barri dare. Sua, zelan beti nahikua misterioa izan dan, umientzako be hala ete dan jakin gura izan dogu. Honetxek dira San Juan ostian egifiddako galderia emondako erantzunak.

Koldo Olaortua (5 urte)


Ba... fuego!!! Ba, Sua!!! Erretzeko da, apurtu dana ta gero erre egitten da. Lurra apurtzen da ta gero sua egitten da, barrutik lurretik urtetzen da sua. Suak gauza guztiak ekartzen ditte, dana-dana.



Mikel Gorosabel (6 urte)


Erretzeko gauzak. San Juanetarako da sua, Zikinkerixak erretzeko. Arbolak erretzeko, baiña arbola zaharrak erretzeko bakarrik. Txakurrei ta jana emoteko. Janarixa

egittekoko da, Arroza da neri gustatzen jatana eta hori be suakin egitten da.




Ander Gorosabel (6 urte)

Amatxok ez dau erabiltzen sua, Aittak egitten dau sua, egurrak eta erretzeko da, bakarrik egurrak. Basuan egitten dau sua. Bueno, basuan ikusi neban sua baiña Bolatokin be bai. Polittak ziran, haundixa. Ah, periodikuak erretzen dira. Amatxok ez baiña aittak zigarrua erretzen dau.




HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

LABEAN EGINDAKO ITSAS SAPOA

Sukaldaria: Edurne Arrazola

Iñaki Jatetxea




NOLA PRESTATU:

Hasteko, itsas sapoa ondo garbitu uretan, gero azala kentzeko.

Labean sartzeko ontzi bat prestatu olio eta gatzarekin. Itsas sapoaren solomoak hezurretik piskat askatu. Ontzian ipini eta labean sartu.

Labean eduki baherreko denbora tamainaren arabera izaten da, baina 20 minututan egina egoten da.

Zartagin batean olio berotzen ipini eta berakatza eta pipermiña gorritu. Itsas sapoa labetik atera eta zartagineko olio gaitetik ixuri. Horrela jateko prest izango da.



OSAGAIAK:

Itsas sapoa
Gatza
Olio
Berakatza
Piparmiña



GOMENDIOAK:


Solomoak piskat askatu behar dira hezurretik hobeto egiteko.

20 minutu nahikoa izaten dira arraina egiteko, baina sardeska sartu eginda dagoela ikusteko.

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Elgetako futbito txapelketa Angiozar aldera

Joan zen zapatuan iritsi zitzaigun Elgetako futbito txapelketa bere amaierara. Jadanik badaukagu garai-lea, Angiozar taldea. Txapelak ezin izan zuen iaz bezala, finaleko bere are-rioa gaintitu.

Ohikoa baino jende gehigo ikusteko aukera izan genuen joan zen zapatuan polikiroldegi ondoko kantxan. Partida, tentsio handikoa izan genuen eta bi taldetako edonork irabazi zezakeen. Lehia ongi hasi zen elgetakoentzat, izan ere, oso final ona jokatu zuen koldok Erostarbek, laster aurreratu zuen bere taldea. Honela amaitu zen lehen zatia. Bigarrena hasi eta gutxira Angiozar taldeko Igorrek bere atean sartu zuen baloia, Txapelari bi goleko errenta eman ziolarik markagailuan.

Kanporatze erabakiorra

Aipatzekoa, bigarren zati honen hasieran epaileak bi jokalaria kaleratu izana (Ibai Angiozarkoa eta Alain). Bi taldeak jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren partidu osorako. kaleratze honek Txapelari egin zion kalte handiena, izan ere, Alain zen momentu horretara arte bere taldeko jokalaririk garrantzitsuena. Gauzak honela, Angiozarkoek beren lehen gola sartu zuten geroago kaleratua izango zen lbaien eskutik eta bigarrena handik gutxira (Iñigok). Esan, Angiozarrek bere 2. gola sartu aurretik, epaileetako batek, hainbat jokalariren protesten aurrean partidua amaitutzat eman zuela. Hau honela gera ezin zitezela eta, bi taldeek partiduari berrekin zioten beste epailearekin. Honela iritsi



Angiozarkoak txapelketa bikaina burutu dute.

ziren bi taldeak bigarren zati amaierara. 10 minutuko bi zati gehigarri jokatu behar izan ziren. Angiozarkoek, beren 3.(Enrike) eta 4.(Igor) golak egin zituzten luzapenean. Txapelako jokalaria lehertuta zeuden, baina hala eta guztiz ere, Oxelek 3. gola sartu ahal izan zuen. Jada arauzko denbora beteta zegoenean, Etorrek berdinketa bere oinetan izan zuen baina ez zuen asma-

Nesken finala

Nesken partiduari dagokionez, Joixon Bertanekoek 3 eta 1 irabazi zieten Hi Argi Ibili taldekoei. Olaiak aurreratu zituen Joixon Bertanekoak. Jarraian Evak berdinketa lortu zuen, baina bigarren zatian Olaiak bikoa egin zuen eta Eneritzek hirugarrena.

"Muru"-k eta Otaegik jokatuko dute 4 t'erdiko finala

Asko sufritu ondoren lortu zuten finalerako txartela

Iker Muruamendiaraz bergararrak eta Otaegi azpeitiarrak jokatuko dute aurtengo 4 t'erdi barruko finala finalerdietan Chafee eta Atxa gaiditu ostean.

Denek esperotako finala izango da, baina uste baino arazo gehiago izan zituzten finalerako txartelak lortzeko.

Otaegik 22 eta 17 irabazi zion Atxa nafarrari. Almandozko pilotariak bikain jokatu du txapelketa guztian zehar eta ez zegoen finalerako txartela erregalarzeko prest. Partida gogorra izan zen, tantu guztiak oso borrokatuak izan ziren eta azkenean zorte gehien izan zuenak

irabazi zuen lehia. Otaegik bigarren aldiz jokatuko du finala.

Bigarren finalerdian, Iker Muruamendiaraz eta Chafee izan genituen nor baino nor. Jatorri marokoarra duen irurtzundarrak bikain hasi zuen partida eta abantaila nabarmenak izan zituen

partidaren lehen bi here-netan (11-17). Momentu horretan bergararrak sakea berreskuratu zuen eta 19. kartoirarte joan zen zuzenean Chafeeren hutsak aprobetxatuz. Ia ordubeteko partidaren amaieran Muruamendiarazek 22 Chafeek 19.




IRAMA

24 orduko zerbitzua
 mensatel: 900282828
 abonatu: 247262
 tel: 789057-768025

Instalazioak eta mantentze lanak

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Ez dago gehiago eskatzerik

Liga irabazi ondoren kopako txartela ere lortu du Estampaciones Elgetak

Urte dexente pasa dira Estampaciones Elgetak bere lehenengo txapelketa irabazi zuenetik. Hainbat urtetan txapelketa lortzeko zorian izan ondoren aurtentan lortu dute, eta nola gainera! Liga guztian zehar partidua bakarrik galdu dute (Pescaderias Pro-ren aurka lehenengo itzulian) eta gainontzeko partiduetan ez dute arazo handirik izan garaipena lortzeko.

Horren txapelketa ona egin ondoren ez da erraza izaten inor nabarmentzea, baina argi dago Angel Iñarraren parte hartzea ezinbestekoa izan dela titulua lortzeko.



Beren garaipenak ospatzeko aukera izan zuten.

Angel, inongo zalantzarik gabe, Eibarreko torneoko jokalaririk onena da eta izugarritzko denboraldia egin ez arren argi dago lehen ez zuten zer bait

eman diola taldeari. Dena den ez ditzagun ahaztu Etor, hau ere txapelketako jokalaririk onetarikoa, Iban, Arizmendiarrrieta anaiak, Oier, Sergio,

Julian... eta bereziki Bittor eta Jabier urte askotan - lehenengo Elgetakoekin eta ondoren "Estampa"-rekin txapelketa irabazteko gertu izan ondoren azkenean lortu dute eta.

Kopan ere erraz

Liga amaitu eta astebetera kopa jokatu zuten eta ez zuten inongo arazorik izan garaipena lortzeko. Finalurdenetatik kanpo geratu ondoren, finalerdietan The Potes taldea hartu zuten mendean eta finalean erraz gailendu ziren Sehiga talde ermuarraren aurka (43-27).

Askasibar garaipenetik gertu

Irabazteko zorian izan genuen Oskar Bergarako jaietan izan zen lasterketan, San Martin proban hain zuzen. Duela bi urte moduan bigarren izan zen. Lasterketako zati gehiena ihes eginda egin zuten beste txirrindulari batzuekin. Elgeta gainetik lehendabiziko postuetan pasa zen. Lasterketa amaitzeko kilometro batzuren faltan, gero irabazle izango zenak ihes egitea lortu zuen. Beste iheslariak txirrindulari hau begibistan izan arren,

ez zioten Oskarri eta bere taldekoei erreleborik eman (jarrera ulertezina). Oskar saiatu zen iheslaria harrapatzen, baina tamalez azke marraren gainean egin zuten bat berarekin.

Beste emaitza batzuk: Llodion 3., gipuzkoako erlojupeko proban 18., Seguran 13. eta Tolosan 13.

Bestalde, Elgetan badugu txirrindularitzan hasi zaigun beste gazte bat. Bera, Aitor Kortazar dugu. Gaztea da oraindik

(infantila), baina egindako proba guztiak 7 lehenen barruan amaitu ditu. Lehen lasterketan laugarren izan zen eta beste batean lehenengo zihola erori, eta hirugarren amaitzea lortu zuen. Ea hurrengo batean garaipen bat lortu duela idazten dugun.

Uztailaren 11an maila handiko txirrindulariak ikusteko aukera izango dugu Elgetako bide bazterretan. Urtero bezala, 15:30etatik aurrera Euskadiko Mendi Kriteriuma



Aitor Kortazar, aurten hasi da txirrindularitzan.

izan go da eta. Lasterketa 18:30ak aldera amaituko da eta orduan jakingo dugu nor izan den iazko irabazle izan zen Ernesto Manchonen ordekoa.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

KONTXI ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauz izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruenerako meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elkone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano
- Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Errekaren eskumaldeko baserriak

Baserriei buruzko sail honetan Angiozar errekararen eskumako aldean dauden baserriei buruz berba egin behar dugu, baina ez atzera begira orain arteko historia azaltzeko (hori datorrenekoan egingo dugu), aurrera begira zein etorkizun iluna datorkien aurreratzeko baizik.

Ez da izan ohizkoa bailara honetan errekaraz eskumaldera, hau da, bailara honen hegoaldeko mendi sail horretan, aiñubean, etxeak egitea. Dauden baserri-etxe guztietatik zazpi daude bakarrik alde horretan, bost Errekaldean (garai baten beste hiru ere baziren) eta horietatik lau errotak edo boluak ziren.


Errekaldean errekaraz bestalde dauden baserriak hauek dira: Loidi-etxebarri, Loidi, Loidi-bolu, Askasibar, Askasibar-bolu eta Eduegi. Hauek etxeok eta erreka ondoan dauden guztiak oso etorkizun iluna dute baldin eta iragarrita dagoen Abiadura haundiko Trena egiten bada. Izan ere guztiak kalte-

tuta gelditzen dira lan erraldoi honen ondorioz, batzu ia zutik jarraituko duten dudarekin (Eduegi eta Loidi Etxebarriren kasuan) eta besteei ere trena etxe ondoran azaleratzen zaieenez ia bertan bizitzeko modurik gabe gelditzen dira.

Egiten bada (eta hala dirudi, ematen dioten etengabeko bonboarekin) lur sail zabalak behar ditu Abiadura Haundiko Trenak pasa dadin. Trenbidearen albo bakoitzera 20 metroko zabalera duen serbidunbrea sortzen du, lur hauek betirako trenbidearen menpe geldituz behar denerako, trenbideek (bi sentidu) 14 metroko



AHT-k bailara txikituko du. Bertako baserriak desagertzeko zorian.



Trenaren komunikazio sistema orokorraren irudia.

zabalera behar dutelarik guztira. Gainera, lanek irauten duten denboran, hamalau metro horietatik kontatzen hasita beste 50 metroko zabalera duen lurraldea erabilgarria ("zona de afección") izango da.

Erreka bestaldeko baserri-erretxe guztiak daude eremu hauen barruan, lanek denetan edukiko dutelarik eragina eta batzuen etorkizuna oso beltza ikusten delarik. Esate baterako, Eduegi baserri inguruan hasieran tunelpean aurrizkustuz bazen ere orain baserria bota eta dena azalean eramateko proposamena egiten da Azkunetako Errota pareraino, leku honetan bi tuneletatik Aramaixora eta Elorrixora banatuz.

Egoera honen aurrean


Angiozar bailarako Batzarrak egin ditu dagoeneko alegazioak, Bergarako Udalarik proposatu eta honek onartu zuen proposamenarekin bat eginez. Alegazio honetan Epeletik zehar doan Beasain Durango autobidearen albotik eramanez kalte gutxiago egiten zela adierazten eta beraz, proposamena kontutan hartzeko eskatzen zen. Bitartean, egin diren estudio teknikoek proposamena bideragarria dela baieztatu dute, duen arazo bakarra geltokirik egiteko posibilitatea ez dagoela da.

Baina horretan, Arrasateko Udalak Angiozartik egiteko eskaria egin du, aurrez Mankomunitatean hartutako erabakiei kasorik ez eginez eta Deba Garaiko Mankomunitatea ere alde horretara eramanez. Badirudi horretarako enpresen pre-

sioa egon dela.

Mendetako historia duten etxeok benetan etorkizun eskaxa dute: hiru abizenen jatorria izanek (Loidi, Askasibar, Eduegi), baserri etxe barroko bikaina izateak, errota, presa, ... dena berdinduta gelditzen da injinariaren erregelaren aurrean eta, ondorioz, eremu nahiko naturala mendi aldapa erdian dagoen marra zabal bat bihurtuko da, tarteka Gugenheimera lau Donostiar hamar minutu azkarrago eramatearren.

Bidaiariaren zaindaria den San Kristobalek babes ditzala trenbidearen azpian desagertzetik!!



Bi bideko trenbidearen parametro geometrikoak.

AZOKA NAGUSIA 1998**Uztailaren 2a, Eguena****Haurren eguna**

14:00etan: Etxafleroak eta kanpai hotsa.
 15:00etan: Ume Parkea (6 ordu). Plazan.
 18:00etan: Buru-handiak.
 22:30etan: Erromeria plazan, AZKONABIETA eta JOKINEkin. MOZORRO GAUA
 00:00etan: Txupinazioa, Kaskajoen pregoia eta Suzko zezena.
 ondoren: Erromeria AZKONABIETA eta JOKINEkin.

Uztailaren 3a, barikua**Jubilatu eta Kaskajoen eguna**

10:00etan: Etxafleroak.
 11:30etan: Meza eliza nagusian.
 Ondoren: Ertzaintzaren eresbatzaren emanaldia.
 14:00etan: Bazkaria jubilatuentzat Ozkarbi elkartearen.
 17:00etan: Kale animazioa pailasoekin. Ondoren buru-handiak.
 18:30etan: Zezen txikiak eta poftokak.
 19:00etan: Ori txaranga.
 20:00etan: Bolo txapelketa jubilatuentzat.
 23:00etan: Alaitz eta Mainer taldearekin erromeria.

Uztailaren 4a, zapatua

11:30etan: XI. Intxortako igoera.
 13:00etan: Herri kirolak.
 15:30etan: Buru-handiak.
 16:30etan: Play-back. (15 urte arteko umeentzat).
 18:30etan: Txirrindulari lasterketa ume eta gurasoentzat. Industrialdean.
 19:30etan: Zezen txikiak pottokekin eta Incansables txarangarekin.
 23:00etan: Erromeria Kiñu taldearekin.
 00:00etan: Bolo txapelketa.
 Goizaldean: Txorizua banatuko da Hiazea, Patxi eta Gaztetxean

Uztailaren 5a, domeka**Azoka nagusia**

9:00etan: Ganadu lehiaketa makinari eta burdindegi azokaren zabalketa.
 11:00etan: Elgetako eskolako trikitaliak.
 18:00etan: Elgetako dantzariak.

18:00etan: Pilota partidak: 4'terdiko txapelketaren finala. ETB kantxa saria.
 19:00etan: Erromeria ENE BADA taldearekin.
 2:00etan: Sardinaren lurperatzea.

Uztailaren 11, zapatua**EUSKADIKO XIV. MENDIKO TXIRRINDULARI LASTERKETA****Uztailaren 19a, domeka**

9,30etan: EHIZA TXAKURREN LEHIAKETA. ANTZUATEGI baserriaren zelaietan.

.....
eta aurten ELGETAN, JAI MUNDIALAK HI! JAIETAN ERE, EUSKARAZ!



Argazkia: Ramon Ugalde

Lehenenguak saskibaloian

Elgetan egon dan lehenengo saskibaloitaldia da erretratuan dagona. Ordutik hamahiru urte pasa dira.

Hau erretratuau aukeratzea pentsau dogu, izan be, erretratukuak oiñ dala hiru bat aste berriro elkartu dira ta. Partidua be egiñ zeben euren artian, ta ondiokan be saskiratziak ez ziran falta izan. Ezta hurrengo goizeko hanketako kalanbriak be.

Mutikote galantak eta ez hain galantak ikusten dira Eibarreko polikiroldegixan etarata dagon erretratuan. Gerora, egon da jente barrixa ta horrek taldiorrek ez dau sekula jente faltaik izan.

Denpora tarte luzian hori taldioi ez dago jokatzten, baiña afarixak egitteko ohitturaik ez dabe galdu. Gaztiauak dabiz oiñ Eibarreko txapelketan eta bertako ligan ta kopan lehenengo geratu barri dare.

Auskalo ze pasauko litzaken gaztiak ez hain gaztien kontra ifini ezkeru. Gaztiak bizkorrau ibiliko litzakez, baiña esperientzia ezin ukatu Elgeta Saskibaloitaldiak izango leukenik.

Honetxek dira saskibaloilari famauok:

Luis Zabaleta, Jesus Egizabal, Josean Egizabal, Josu Arantzabal eta Migel Arantzeta,

Beheko hillaran: **Enrike Ormaetxea, Emilio Rubio, Ramon Ugalde, Pello Gorrotxategi eta Pello Izagirre.**

Hemen gara!

Todo terreno CRV



HONDA

Prelude



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate

MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g. ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 771625
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 797564



HONDA

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK

BERGARA (GIPUZKOA)
San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tel.: 943 76 36 42 - Faxa: 943 76 54 25.



GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa